

HEDABIDEAK (2023ko uztaila) Prensa oharra

Sarrera

Ikerketaren helburua izan da kontsumo-ohiturak eta herritarrek komunikabideei buruz duten iritzia biltzea. Landa lana 2023ko ekainaren 5a eta 9a bitartean egin zen.

Hedabideen erabilera

Telebista da egunero gehien kontsumitzen den hedabidea, baina belaunaldien arteko ezberdintasuna nabaria da.

Telebistak jarraitzen du izaten egunero gehien kontsumitzen den hedabidea: herritarren %74k esan du egunero edo ia egunero kontsumitzen duela. Hala ere, datuek argi eta garbi erakusten dute belaunaldi-aldaketa dagoela; beraz, egunero telebista kontsumitzen dutenen ehunekoa jaisten ari da 65 urtetik gorakoen % 94tik eta 46 eta 64 urte bitartekoen % 75etik, 30 eta 45 urte bitartekoen % 57a eta, 30 urtetik beherakoen soilik % 33ra.

Irratiari dagokionez, % 64k astean behin baino gehiagotan entzuten du, eta, berriz ere, zaharrenek kontsumitzen dute neurri handiagoan (% 72k 46-64 urte bitartekoen artean eta % 69k 65 urtetik gorakoen artean), eta % 27k soilik kontsumitzen du gazteenen artean.

Halaber, **paperezko prentsa idatziaren** eta **Interneteko prentsa idatziaren** arteko aldea nabarmen ari da zabaltzen herritar guztien artean: % 29k astean behin baino gehiagotan irakurtzen dute paperezko prentsa, eta % 59k, berriz, Interneten. Gazteenen kasuan (18-29 urte), % 10ek paperezko prentsa idatzia irakurtzen dute, eta % 65ek Interneten.

Biztanleriaren % 54k **sare sozialak** erabiltzen ditu, astean behin baino gehiagotan, eta, gainera, % 39k edukiak kontsumitzen ditu **online plataformetan**. Nabarmentzekoa da, halaber, belaunaldien arteko aldea: gazteen % 91k egunero erabiltzen ditu sare sozialak, eta 65 urtetik gorakoen artean, berriz, % 23k.

Azkenik, **podcastak** dira maiztasun gutxienarekin kontsumitzen diren hedabideak, % 65ek esan baitu ez dituela inoiz entzuten. Hala ere, badirudi kasu horretan ere indar handiz sartzen ari direla gazteenen artean, eta 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 36k astean behin baino gehiagotan edo egunero entzuten dituzte, eta 30 eta 44 urte bitartekoen % 26k ere bai.

Europar Batasuneko herrialdeekin alderatuta, Euskadiko biztanleria Europako batez bestekoan legoke telebistaren eguneroko kontsumoari dagokionez, eta apur bat gainera dago prentsa digitalaren kontsumoari dagokionez, eta, batez ere, irratia kontsumoari dagokionez. Aldiz, sare sozialak gutxien kontsumitzen dituzten herrialdeen artean legoke.

Sare sozialen kontsumo maiztasunari dagokionez, WhatsApp da gehien erabiltzen dena: euskal herritarren % 89k askotan edo sarritan erabili du azken 7 egunetan. Hurrengo erabilienak Facebook eta Youtube dira, herritarren % 47k eta % 59k erantzun baitu azken astean erabili dituela egunero edo sarritan.

Telegram eta Twitter dira, ordea, gutxien erabiltzen direnak: hamar herritarretatik ia 2k erabiltzen dituzte sarritan edo noizean behin.

WhatsApp izan ezik, adin-talde guztiek gehien erabiltzen duten sare soziala baita, belaunaldien arteko aldeak ere badaude sare sozialen erabilierari dagokionez; hala, gazteenen artean (18-29 urte) Instagram da gehien erabiltzen dena, 30-44 urteko biztanleen artean ia neurri berean erabiltzen dira Facebook, Instagram eta Youtube, eta 45-65 urtekoen artean Facebook da erabiliena. 65 urtetik gorakoen artean askoz gutxiago erabiltzen dira sare sozialak, baina Facebooken alde ere egiten dute gehien.

Informazioaren kontsumoa hedabideetan

Tokiko informazioak pizten du interes handiena, eta kirol informazioak gutxien.

Gaurkotasuneko albisteak asko edo dezente interesatzen zaizkie lau pertsonatik hiruri (% 74). Berri horien artean, tokiko albisteak (% 83), kultura-arlokoak (% 69), nazioartekoak (% 56), ekonomikoak (% 54), politikoak (% 51) eta kirol-arlokoak (% 40) dira gehien interesatzen direnak.

Ekonomiari buruzko berriekiko interesa, ordea, gehien jaitsi da 2018tik, % 68tik % 54ra.

Telebista da oraindik berriak jarraitzeko hedabide gogokoena, Internet gazteen artean gogokoena izan arren.

Gaurkotasuneko albisteak jarraitzeko, telebistak jarraitzen du hedabide gogokoena izaten, baina urtez urte ehunekoak behera egiten du. 2014an, EAEko herritarren % 76k aukeratu zuen albisteak egunero telebistan jarraitzea, eta gaur egun, berriz, % 59k.

Internet da bigarren hedabiderik erabiliena egunerokotasunari buruzko berriak jarraitzeko (% 52) telebistatik oso hurbil, eta 2010etik geroztik etengabe igotzen ari da (%13). Bertan, online egunkariak dira gehien erabiltzen direnak, aldiz, Google News edo antzeko albiste biltzaileak gutxien.

Informatzeko irratia erabilera egonkor mantentzen da eta ez da aldatu 2014tik. Herritarren % 43k entzuten du egunero. Berriz ere, helduak dira irratia berriak entzuteko gehien erabiltzen dutenak.

Albisten kontsumoaren maiztasunari dagokionez, % 40k orain bost urte baino albiste gehiago irakurtzen edo entzuten dituzte, beste hainbatek kopuru bera irakurtzen edo entzuten dute eta % 20k albisten kontsumoa murriztu dute. Orain berri gutxiago kontsumitzen dutela esaten dute albiste kopuru handiarekin nekatuta daudelako (% 37); ondoren, denbora faltagatik (% 33) eta aldarrean sortzen dituzten ondorio negatiboengatik (% 25). Azkenik, % 18k dio albiste gutxiago kontsumitzen dutela, fidagarritasun txikikoak direlako edo partzialak direlako.

Hedabideekiko konfiantza eta pertzepzioa

Euskadiko hedabideek konfiantza handia ematen diete euskal herritarrei.

Hedabideekiko konfiantza jaitsi egin da 2018. urtetik. Garai hartan, 0tik 10erako eskala batean, 5,7 puntuko konfiantza bazen, 2023an 5,3koa da, 2014ko antzeko puntuazioa. Konfiantza gehien ematen duen hedabidea irratia da (6,0), ondoren paperean idatzitako prentsa (5,5) eta telebista (5,1). Gutxien, ordea, sare sozialak (3,6), Google News edo antzeko biltzaileak (3,7), WhatsAppa (4,5) eta Interneten idatzitako prentsa (4,8).

10 herritarretik 8k (% 80) uste dute Euskadiko komunikabideek informazio fidagarria eskaintzen dutela, 10etik 7k (% 72) ikuspuntu eta iritzi ugari eskaintzen dituztela, eta 10etik 5ek (% 49) presio politiko edo komertzialik gabeko informazioa eskaintzen dutela. Europarekin alderatuta, Euskadi da informazioaren fidagarritasunaren gaian puntuaziorik handiena jasotzen duen tokietako bat.

Informazio faltsua edo fake news

Gehiengoarentzat informazioa ongi dokumentatua izateak ematen dio sinesgarritasuna informazioari.

EAEko 10 biztanletik zortzik diote informazio faltsua aurkitzen dutela gutxienez hilabetean behin baino gehiagotan, 2018ko portzentaje bera. Informazioa noiz den faltsua identifikatzeko gaitasuna duela %51k adierazi du.

Gehienek diote informazioari egiazkotasuna ematen diona ondo dokumentatuta egotea dela, nahiz eta iritzi hori 8 puntu jaitsi den 2018tik, % 60tik % 52ra. Aitzitik, informazioa argitaratuta dagoen hedabidearengan eta informazioa partekatzen duen pertsonarengan konfiantza zertxobait handitu da: % 23raino eta % 15eraino, hurrenez hurren.

Azkenik, gehiengoarentzat informazio faltsuaren presentzia hedabideetan arazoa da demokraziarentzat, baina duela bost urterekin alderatuta jaitsi egin da iritzi hori: 2018an arazo larria edo neurri batekoa baldin bazen % 90entzat, orain % 86k egin du baieztapen hori.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.013 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,14$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2023ko ekainaren 5etik 9ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak